

## **LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK 2024KO URRIAREN 10EAN EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Lehendakaritzan (Nafarroa kalea 2, Gasteiz) egin da Kontseilu Errektorearen bilera, 2024ko urriaren 10ean, 16:30ean hasita. Honako pertsona hauek parte hartu dute:

- Imanol Pradales Gil lehendakari jauna, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetzak) eta haren Kontseilu Errektorearen presidentea.
- Ander Caballero Barturen jauna, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusia eta eLankidetzaren presidenteordea. Bertan izan da hitzarekin baina botorik gabe.
- Batzordekidea: Asier Aranbarri Urcelai jauna, Berrikuntza Sozialeko zuzendaria.
- Batzordekidea: Lore Bilbao Artetxe andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.
- Batzordekidea: José Enrique Corchón Álvarez jauna, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea.
- Batzordekidea: Raúl Pérez Iracheta jauna, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea.
- Batzordekidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen partetik.
- Batzordekidea: Nerea Uriarte Goitia andrea, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen partetik.
- Batzordekidea: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, GGKE-en Koordinakundeak ez diren beste eragile sozial batzuen aldetik.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Halaber, bileran parte hartu dute, gonbidapen bidez eta gai-zerrendako gaiak aurkeztean laguntza teknikoa emateko, Noemí de la Fuente Pereda andreak (eLankidetzako koordinazio estrategikorako zerbitzuaren arduraduna) eta Alazne Camiña andreak (eLankidetzako koordinazio teknikorako zerbitzuaren arduraduna).

## Sarrera

Lehendakariak hartu du hitza eta ongi-etorria eman die bertaratu direnei. Ondoren, eLankidetza aurkeztu du Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren baitan, bai eta hamahirugarren legealdirako helburuak ere.

Jarraian, saioa hasi da. Hona hemen gai-zerrenda:

1. *2024ko maiatzaren 29an egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea*
2. *Lankidetza eta elkartasuneko 2025eko aurrekontuen aurreproiektu-proposamena onartzea*
3. *2024ko proiektuei laguntzak emateko proposamena onartzea*
4. *eLankidetzaren 2023ko memoria onartzea*
5. *2024ko hitzarmenen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea*
6. *Ekintza humanitarioko 2024ko proiektuetarako laguntzak emateari buruzko informazioa*
7. *Garapenerako lankidetza-programetarako laguntzak emateari buruzko informazioa*
8. *Genero-berdintasunaren aldeko erakunde barruko aldaketa-prozesuak sustatzeko lankidetza-erakundeei zuzendutako 2024ko laguntza-deialdiaren emakidaren ebazpenari buruzko informazioa.*
9. *2023ko soldata-igoeraren % 0,5 gehigarriaren aplikazioari eta 2024ko soldata-igoeraren % 2 gehigarriaren aplikazioari buruzko informazioa*
10. *Urte anitzeko plangintza-prozesuari buruzko informazioa*
11. *Eskariak eta galderak*

### **1. Aurreko saioko akta irakurri eta onartzea.**

Bileran parte hartu duten pertsonak ez dute inolako oharrik egin; hortaz, 2024ko maiatzaren 29ko saioko akta onartu da, bertaratutako pertsona guztien aldeko botoarekin.

### **2. Lankidetza eta elkartasuneko 2025eko aurrekontuen aurreproiektu-proposamena onartzea**

Presidenteak Paul Ortigari eman dio hitza, lankidetza eta elkartasuneko 2025eko aurrekontuen aurreproiektu-proposamena aurkezteko.

Horren ostean, Nerea Uriartek hartu du hitza, eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundea aurrekontu-proposamenarekin harrituta geratu dela adierazi du, azken hiru urteotan lankidetzarako eta elkartasunerako 3/2024 Legerako egin den baterako lana ikusita.

Jarraian, Josu Urrutiak aditzera eman du Koordinakundeak kontrako botoa emango duela, eta harridura eta aurrekontuekiko desadostasuna azaldu ditu, ez baitatoz bat aipatu legean finkatu den finantza-konpromisoarekin.

Ildo berean, Elsa Fuentes urteko igoera espero zuela esan du, eta igoera hori aurrekontuaren igoera orokorrarekiko proportzionala izatea gutxienez. Boto negatiboarekin bat dator.

Lehendakariak hartu du hitza, eta azaldu du, administrazio-prozedura dela eta, lankidetzarako aurrekontuen aurreproiektu bat onartu behar dela, baina adierazi du egiteke dagoela, hainbat gai garrantzitsurengatik. Alde batetik, Finantzen Euskal Kontseilua egitea eta, bestetik, Madrildik gastuaren araua eta defizitaren bidea ezartzea. Gaineratu du ez dela eLankidetzaren aurrekontua soilik, baizik eta Jaurlaritzan dauden lankidetzaren eta elkartasun-partiden multzoarena.

Ondoren, José Enrique Corchónek parte hartu du. Berretsi du aurrekontua ez dagoela itxita, eta zuhurtzia eskatu du.

Azkenik, aurrekontuen aurreproiektu-proposamena bozkatu da. Onartu egin da, Josu Urrutiaren, Nerea Uriarteren eta Elsa Fuentesen kontrako hiru botoekin eta gainerako aldeko botoekin.

### **3. 2024ko proiektuei laguntzak emateko proposamena onartzea**

Alazne Camiñak labur-labur azaldu du zer dirulaguntza eman diren, zein ukatu diren, zer proposamen baztertu diren eta zer atzera-egite gertatu diren.

Amaitutakoan ez da galderarik egin. Beraz, proposamena bozkatu da. Josu Urrutia, Nerea Uriarte eta Elsa Fuente abstenitu egin dira, interes-gatazkagatik, eta gainerako botoak aldekoak izan dira. Hala, gehiengoarekin onartu egin da.

#### **4. eLankidetzaren 2023ko memoria onartzea**

Lehendakariak Paul Ortegari eman dio hitza, eta hark 2023ko memoriako punturik garrantzitsuenen xehetasunak azaldu ditu.

Gero, datuak sistematizatzen eLankidetzak egiten duen lana eskertu du Josu Urrutiak, eta lan osoaren adierazpen grafikoa azpimarratu du.

Orobat, Elsa Fuentek egindako lana goraiatu du, eta informazioa gizarte osoarengana iristeko nahia adierazi du, diru publikoarekin egiten den lana aitortzeko eta horren alde egiteko.

Azkenik, Josu Urrutiak lan egiten den eremura joan daitezen gonbidatu ditu Kontseiluko kideak, proiektuen bitartez egiten den lanaren emaitza zuzenean ezagutu eta irismena ikusteko.

Bozkatu denean, 2023ko memoria aho batez onartu da.

#### **5. 2024ko hitzarmenen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea**

Lehendakariak azaldu du Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundearen Elkartearentzako (EUSKAL FONDOA) zuzeneko dirulaguntza bat dela, AKUAL Ertamerika-Euskadi ur eta saneamenduaren arloko erakundearteko lankidetzaprogramaren 2024-2025 urteko plana finantzatzen laguntzeko.

Azalpenaren ostean, bozkatu egin dute eta aho batez onartu da.

#### **6. Ekintza humanitarioko 2024ko proiektuetarako laguntzak emateari buruzko informazioa**

Alazne Camiñak aipatu du informazio gisa jorratuko dela puntu hau. Alegia, nahiz eta laguntza EHAAn argitaratuta dagoen jada, informazioa emango da Kontseilu Errektorean.

Ondoren, ekintza humanitarioko bi laguntza-ildo zehaztu ditu, eta azken ekimen bat finantzatu ahal izango dela berretsi du.

## **7. Garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak emateari buruzko informazioa**

Hasteko, Alazne Camiñak adierazi du hau ere EHAA n jada argitaratu den emakida bat dela. Deskribatu egin du gero, eta dirulaguntza-ildo hau proiektuen deialdia baino anbiziotsuagoa dela azpimarratu du, iparrean eta hegoan eragiten diguten mundu-mailako arazoei modu globalean erantzutea bilatzen duelako, ikuspegi tokikoa-globala izatea bereizgarri izanik beti ere.

## **8. Genero-berdintasunaren aldeko erakunde barruko aldaketa-prozesuak sustatzeko lankidetzakerakundeei zuzendutako 2024ko laguntza-deialdiaren emakidaren ebazpenari buruzko informazioa.**

Lehendakariak hitza eman dio berriro Alazne Camiñari, eta hark deialdiaren helburua eta lau dirulaguntza-ildoak azaldu ditu. Adierazita utzi du ondoz ondoko hirugarren urtea dela ekintza-plan estrategikoa egiteko ildoan entitate bat ere aurkeztu ez dena, ezta ekintza-planaren ezarpenaren ebaluazioan ere. Dena den, entitateekin hitz egin eta gero, gehienez finantza daitekeen zenbatekoa da arrazoa. Ahal denean aldatzea aurreikusten da, dirulaguntzen dekretuak dirulaguntzen araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea egokitzen direnean.

## **9. 2023ko soldata-igoeraren % 0,5 gehigarriaren aplikazioari eta 2024ko soldata-igoeraren % 2 gehigarriaren aplikazioari buruzko informazioa**

Lehendakariak Paul Ortegarri eman dio hitza, eta ezagutzera eman du soldata-igoerak direla, gobernu-ildoei jarraitzen dieten arauengatik aplikatuak.

## **10. Urte anitzeko plangintza-prozesuari buruzko informazioa**

Noemí de la Fuentek aipatu du lankidetzarako eta elkartasunerako 3/2024 Legean gobernu osoaren urte anitzeko plangintza aurreikusten dela. Horretan lagundu behar dute sail, organismo eta erakundeetako plangintza estrategiko eta sektorialek, garapenerako politiken koherentziatik bideratuta. Eta esparru horretan aurreikusten den eLankidetzaren plangintza-prozesu espezifikoak aurkeztu du, Kontseiluko kideei bidalitako dokumentuekin bat etorritik.

Beste ohar edo iruzkinik egin ez denez, gai-zerrendako hurrengo puntuari ekin diote.

## 11. Eskariak eta galderak

Paul Ortegak aditzera eman du Kontseilu Errektorearen beste bilera bat egingo dela urtea amaitu baino lehen.

Jarraian, Josu Urrutiak lehendakariari eskertu dio eLankidetzara Lehendakaritzara itzuli izana, eta gogora ekarri du Legebiltzarrean adostasuna suertatu zela 3/2024 Lege berriaren harira. Egoerari probetxu ateratzea proposatu du, euskal jendarteak bereizgarri duen elkartasun-politikari bultzada emateko.

Bestalde, 2025eko aurrekontua ez igo izanak entitate sozialetan arazoak eragingo dituela esan du, eta adostasunekin eta hurbileko harremanekin jarraitzeko animoak eman ditu.

Lehendakariak erantzun dio lege berria eta inbertsio handiagoa behar direla bere ustetan ere. Horregatik, konfiantza eta denbora eskatu ditu, egoera aztertzeko eta beste gobernu-alor batzuetako ekimenei erreparatzeko.

Amaitzeko, Ander Caballero aurkeztu du, Kanpo Harremanetako idazkari nagusia, eLankidetzara haren sailaren mende dago eta.

Beste gairik proposatu ez denez, lehendakariak eskerrak eman dizkie bertaratu direnei eta amaiera eman dio saioari, 18:01ean.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikuluko lehenengo paragrafoan aurreikusitakoa betez, jakinarazten da Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo saioan onartuko dela akta.

Imanol Pradales Gil jaunak ontzat  
emana  
Lehendakaria

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
eLankidetzako zuzendaria